

NAGUSI TXARTELA – TARJETA NAGUSI

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO ZEHAZTUA
Arduraduna	Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia.	Administraziorako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia, Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo Datuen babesaren arloko ordezkaria: Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala (Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo).
Helburuak	Nagusi txartela igortzea; txartel horrek abantaila batzuk eskaintzen dizkie 60 urtetik gorako pertsoneri, erakundeetan zein atxikitako dendetan.	Emandako datuak beharrezkoak dira Nagusi txartela igortzeko; txartel horren bidez, abantaila batzuk eskaintzen zaizkie 60 urtetik gorako pertsoneri, erakundeetan zein atxikitako dendetan. Ez da hartuko zure datuetan oinarritutako erabaki automatizaturik, eta zure datuak ez dira erabiliko zuri buruzko profilik egiteko.
Legitimazioa	Ahal publikoak baliatzea eta eskabidea sinaturik ematen den adostasun espresua.	Zure datuak honako manu hauetan jasotako botere publikoen eskumenak baliatuz tratatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> • 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena. • 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremani buruzkoa. • 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Eskabidea sinaturik baimena ematen duzu zure datu pertsonalen tratamendua egiteko.
Datuak gordetzea		Zure datuak aipatutako xederako beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, xedea amaituta, nahitaez bete behar diren lege edo arauk ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko lege ezarritako epeetan zehar, edo Bizkaiko Foru Aldundiari hala eskatzen zaionean zuzenbidearekin bat eskumena duen agintaritza aginduz.
Helburua	Beren fidelizazio-txartel korporatiboaren bidez abantaila komertzialak eskaintzen dituzten dendak.	Zure datuak bakar-bakarrik lagako zaizkie beren fidelizazio-txartel korporatiboaren bidez Nagusi txartelaren titularrentzat abantaila komertzialak eskaintzen dituzten denda atxikiei, eta betiere pertsona horiek baimen espresua emanda. Ez da aurrez ikusten hirugarren herrialde batzuetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.
Eskubideak	Zure datuetan sartu, datuok zuzendu edo ezabatze eskubidea edo datuen tratamendua mugatu edo tratamendu hori aurkaratzeko eskubideak. Idazki bat bidali beharko duzu Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera.	Zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatze eskua dezakezu, tratamenduaren erabilera mugatzeko, edo tratamenduari aurka egin diezaiokezu, idatzizko komunikazio bat igorri Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari. Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro-gaietan laguntzeko edozein bulegotan aurkez dezakezu idazki hori, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan. Halaber, adostasuna kentzeko eskubidea du, aurretik egindako izapideen zilegitasunari eragin gabe. Eskubide horietakoren bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legeko betebeharrak betetzearekin. Era berean, kontrol agintaritzaren aurrean (http://www.avpd.euskadi.eus) erreklamazioak egiteko eskubidea du, datuen babesaren alorrean dituen eskubideak urratu direla uste badu.
Segurtasuna		Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien aplikazioa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen duen 2010eko urtarrilaren 8ko 2013/2010 Errege Dekretuarekin bat.



EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO ZEHAZTUA
Informazio zehatza	https://www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios , dagokion prozeduran.	